


## PAINETAKO DORREAK 95



# INTSUMISIOA

## DORRE ZENTRALAREN EKIALDEA

Mikel Saez de Urabain

*Paineko Dorre Zentralea*

**E**TXE honetara etortzen naizen bakoitzean, baje-rara joatea gustatzen zait, nire aitona bere bidaietatik ekarri ohi zituen hainbat gauzari begiradaxo eta trikuaren arantzaraino. Den-dena kartoizko kaxetan nahasturik eta apal batean kokatua. Apalaren aldamenean, kaoba kolorezko

armairu fin eta astun bat dago, familiaren erlikia zahar bat alegia.

Armairu honen pertxeroetatik zintzilik, nire aitona mendira eraman ohi zituen arropa koloretsuak plastikoetan gorderek daude, bera alpinista izan baitzen, "hormetako eskalatzaila". Arropen azpian eta kaxen barruan, mailu bat, kasko bat eta bere

erabilpena ezin asma dezakedan beste hainbat eta mendiko tresna. Liburuak ere badaude, liburu asko, baita apunteak dituzten koaderno batzuk ere, badirudi idaztea atsegin zuela.

Betidanik bota izan diet begirada bat bere idatziei, eta gaur bere eskaladetako diario bat topatu dut, zera dio.



**Bide haseran**

da, "ballena de los vientos" ekin bat egiten duena. Elur izoztu plaka batzuk zeharkatu behar dira. Ilarkaitza ona da eta eskalada erraza.

Lau zona hauetako luze bat aukeratu behar izango banu, zail samarra egingo litzaidake. Beharbada, etzandako plakaren aldetik, 7.tirada aukeratuko nuke; A3 luzera gogor borrokatua, hasieran batez ere. Hau plaka gris bat da, non aseguratzeoko puntuek, kremailearen engantxeek brageta trekitzeaz dutela diruditen.

Artifizialean aurreratzen duzu, librean pausoren bat zailtasunez emanez. Plaka honek, sabaiepean amaitzen du, eta metro batzuk aurrerago spit bat dago. Sabala, bata bestearen gainean dauden plaka finez osatua dago, oso urrutiratuak, baino harkaitz onarekin, Berotzeko ariketa ona, muroan erabat sartu aurretik.

**Bizkarrera iristen**

Basoaren itzalean sartu eta bertako txabolak ikustea nahikoa izan da lekuaren magia sentitzeko. Eraikuntza guztiak, txabolak nahi mahaiaik edota iturri baliagarria, basoko egurrez egin zituzten, guztiak daude basoko osagaiez eraikiak. Txabolak apaintzen dituzten tailak oso deigarriak dira, benetako artesautza-lanak, non eskalatzaileek beraien "balentriak" adierazten zituzten, hau izan zen gure bizilekua hurrengo bi hilabeteetan.

Dorreak, oraindik ikusi gabe nituen, igoardirako gerturatze-egunetan lainoan baitzeuden, dorreak ukitzeko, eskuak harkaitz hotzetan erretzeko eta hauek eskalatzegatik erabat hazita eta ezin itxirik edukitzeko irrikitan nengoan.

Erdiko dorrearen itxura lerdena da; hala ere, begiak gehien erakartzen duena bere aurpegiaren edertasuna da, osorik nabari ez bada ere, gailurretatik datozen kizkur bihurriek estaltzen baituzte.



## Lau zatiak

Pareta hau lau zatian bana dezakegu: "placa tumbada": hormaren hasiera, ezker aldean tenteagoa; hau intsumisioaren alde da, 400 metro inguru izango dira. Denboraldiaren hasieran, elur izoztuzko plakak aurki ditzakegu. Harkaitza ez da ona, granito gris hauskorra, eta eskalada nahiko arriskutsua suertatzen da.

"El muro": hasiera bertikala, 300 metro inguru izango dira, hemen harkaitza hobea da, granittoa gogorragoa eta gorriagoa.

"El diedro": pareta guztian zehar ikus badaiteke ere, intsumisioan nabarmenagoa da, eta hau da bidea zabaltzearen arrazoia. Hemen izugarritzko diedroa dago, sorbalda-raino iristen dena; eskalada ezin hobea da, eta eskalada tekniko.

"El hombro": hemen amaitzen da intsumisioaren gune bertikala, gailurreko arista



**Bibak bat eta erabilitako hamaka A5 Etxekoa.**